

«Edonon eta edonoiz» euskaraz mintzatzeko proiektua aurkeztu dute

Soilik mugikorra, tableta edota ordenagailua eta Interneterako konexioa eskatzen dituen plataforma aurkeztu dute • Bertan parte hartzera gonbidatu dituzte herritarrak

-IZARO MENDIETA

Euskaraz «edonon, edonon eta doan» hitz egiteko aukera ematen duen plataforma da Mintzaz, eta aurkezteko bildu ziren atzo goizean, Gernika-Lumoko Kultur Etxean.

2012. urtean sortu zuten Mintzaz, eta erabiltzaileek diotenez, tresna «erosoa, gertukoa, lagungarria, doakoa, aberasgarria, gomendagarria...» da. Tableta, mugikorra edota ordenagailua (kamera, mikrofono eta entzungailuekin) eta Interneterako konexioa soilik eskatzen ditu aipatu proiektuak.

Bidelariak eta bidelagunak parte hartzen dute Mintzaz proiektuan; alegia, euskara praktikatu nahi duten horiek eta bide horretan laguntzen dietenak. Azken horiek ez dira euskara irakasleak izaten, soilik erakusteko gogoia daukaten euskaldunak. Bidelariei gutxieneko euskara maila (A2 edo B1) izatea eskatzen diete Mintzaz-ent-



Mintzaz proiektuaren koordinatzaileak eta bidelagun legez parte hartzen dutenak. IZARO MENDIETA

parte hartu ahal izateko; alegia, gutxieneko elkarrizketa bat mantentzeko gai izan behar dira bidelariak. Hala, elkatruean, bakarkako mintzapraktikaren saioak egiten dituzte bakarka, aurretiaz adostutako egun eta orduan.

Atzoko aurkezpenean, Ainara Loiarde eta Cristina Tapiá Mintzaz proiektuaren koordinatzaileak egon ziren, bai eta zenbait bidelari eta bidelagun ere.

Mintzaz zertan datzan azaldu ostean, erabiltzen dutenen datuak ere eman zituzten Lolar-

te eta Tapiak. Orain arte egin diren saioak, guztira, 11.500 izan direla jakitera eman zuten, eta 1.000 pertsonak baino gehiagok eman dutela izena azaldu zuten. Halaber, parte hartzaileen adin artea 17 urtetik 90 urtera bitartekoa dela aipatu zuten, eta parte

hartzaile kopuru handiena (%64) 30 urtetik 60 urterako tartean dagoela zehaztu zuten. Sexuari dagokionez, halaber, %57 emakumezkoak direla eta %43 gizonezkoak gaineratu zuten. Bidelagun eta bidelari gehienak (%74), berriz, Euskal Herrikoak dira, Loiarde eta Tapiak azaldu-takoaren arabera (%20 atzerrian bizi da, eta %6 Espainian).

Aurkezpena beraratuak herritarrek proiektua bertatik bertara ezagutzeko aukera eduki zuten atzo. Gainera, Uruguayko bidelari baten eta Gernika-Lumon bizi den bidelagun baten esperientziak ezagutzeko aukera ere egon zen, Internet bidez egindako konexioari esker.

Webgunean izena ematea

Euskarazko mintzapraktika egin nahi duenak, beraz, www.mintzaz.net webgunera jo behar du, eta izena eman. Bertan zehaztutako egunaren eta orduaren arabera aurkituko diote izena ematen duen horri euskaraz aritzeko bikotekidea.

Bidelagun zein bidelari izan nahi dutenak gonbidatu dituzte proiektuan parte hartzera, eta bidelariak bidelagunen zain daudela gogorarazi dute. Halaber, euskalkiak ez direla oztopo mintzapraktika egiteko argi utzi nahi izan dute; alegia, batua ez dela derrigorrezkoa parte hartzeko.

Gernikaren sorrera taula gainera eramango dute

-I.M.

Gernika sortu zeneko 650. urteurrenaren harira antolatutako gitarauko azken ekimena egingo dute apirilaren 1ean. Hain zuzen, antzezlan bat ekarriko dute oraingoan: *Gernika 650 Antzerki Taldea*. Aipatu egunean, 33 lagunek 1366. urteko apirilaren 28an jazotako gertakizuna taula gainera eramango dute.

Aurretik antzerkiaren munduan esperientzia izandakoek zein taula gainera inolaz igo ez direnek parte hartuko dute. Hain zuzen, 7 urtetik 70 urtera bitarteko herritarrak izango dira egun horretako protagonista.

Atzo egin zuten *Gernika 650 Antzerki Taldea*-ren aurkezpena, Gernika-Lumoko Elai-Alai aretoan. Antzezlanaren zuzendari eta gidoiari Mila Artetxe, Gernikazarrako Vicente del Palacio, Kultur Etxeko zuzendari Ricardo Abaunza eta Gernika-

Lumoko Udaleko kultura zinegotzi Iñigo Magunagoikoetxea bildu ziren bertan, antzezlanaren parte hartzen duten herritarrekin batera.

Hilabeteak entsegatzen

Azaldu zuten, «oso serio» hartu dute lan hori parte hartzaileek, eta urriaz geroztik, astean birritan entsegatzen dute. Halaber, arropa, *atrezzoa*, musika, animazioa eta bestelakoak asko zaindu dituztela aipatu zuten. Arropa, esate baterako, Balmasedako Udaletik ekarriko dute, bertan utziko baitiete Erdi Aroko arropa. Makillajeaz, oster, Santurtziko San Jorge Lanbide Heziketako ikasleak arduratuko dira.

Hasieran, parte hartzaileak aurkitzea lan zaila izan zela aitortu dute aurkezpenean; orain, baina, ilusioz daudela esan dute. «Ikasketak bat da guztiontzat; gainera, oso giro aberatsa



Parte hartzaileak, zuzendaria, zuzendariordea, kultura zinegotzia eta kultur etxeko zuzendaria. I.M.

sortu da gure artean», aipatu zuten parte hartzaileetako batek; Del Palaciok jakitera eman zuenez, «guztia da boluntarioa eta herrikoia».

Apirilaren 1ean, beraz, Gernika nola sortu zen azaldu eta taula

gainera eramango duen antzezlanagaz gozatzeko aukera egongo da Gernika-Lumoko Lizeo Antzokian, 20:00etan hasita. Antzezlanaz gazteleraz izango bada ere, euskarari ere keinu batzuk egingo dizkiote egun horre-

tan. Beraratu nahi duenak 2-3 aste lehenago edukiko du sarre-erosteko aukera, 2 euroren truke, Lizeon bertan, emanaldiaren bat dagoenean. Hala ere, egun batean ere jarriko dituzte sarre-erak salgai, Lizeon.